



## **Hezkuntza Sailburuordetzaren ARGIBIDEAK, EAEko ikastetxe itunpekoei 2010-2011 ikasturterako curriculum-aniztasuneko taldeak baimentzea eskatzeko dei egiten diena.**

Abenduaren 29ko 1631/2006 Errege Dekretuak, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako gutxienezko irakaskuntzak zehazten dituenak, orokortzen ditu Euskal Autonomia Erkidegoan 1997/98 ikasturtetik aurrera arrakasta handiz ezarri ziren curriculumaniztasuneko programak. 1997ko uztailaren 9ko Aginduaren bidez (uztailaren 29ko EHAA) arautzen dira curriculum-aniztasuneko programak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan. Programa hauek 16 urtetik gorako eta 18 urtetik beherako ikasleentzat dira, irakasletaldearen ustez, eta ebaluazio psikopedagogikoa egin ondoren, bakarrik programa espezifikoaren bidez lortu ahal badituzte etapa honen gaitasun orokorrak.

Maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak, Hezkuntzari buruzkoak, 15 urtetik 18 urtera arte zabaltzen ditu ikasleak programa horietara sartzeko aukerak, baldintza batzuk betetzen baldin badituzte.

DBHn jarraitu ondoren, irakasle-taldeak, gurasoei eta ikasleari entzun ondoren, erabaki behar du ikasle horiek ohiko taldean edo curriculum-aniztasuneko programa batean eskolatuko diren, ikastetxeak finkatutako irizpide orokorren eta ezarritako arauen arabera.

### **1. Deialdiaren helburua**

- 1.1. Deialdi honek 2010-2011 ikasturterako curriculum-aniztasuneko gehienez 60 taldeak eta berauetara EAEko ikastetxe itunpekoetan sartzen diren ikasleak baimentzea du helburu. Curriculum-aniztasuneko banakako programak emateko, ez da aldeztu aurretik baimena eskatu behar.
- 1.2. Itunpeko ikastetxeek aniztasunaren baimena eskatu behar izango dute, 2010-2011 ikasturterako hezkuntza-itunak berritzeko eskaeran azaldu arren.
- 1.3. 2009/2010 ikasturterako curriculum-aniztasuneko taldeak baimendu zaizkien ikastetxeek berriro eskatu beharko dute baimena eta argibide hauen 3. eta 4. puntuetan azaldutakoa, ikasleen eta curriculum-aniztasuneko taldeen ezaugarriei buruzkoa, betetzen badute emango zaie, ikastetxeak, 6.1. puntuari aurreikusten den batzordearen iritziz, argibide hauen 4.4. puntuari agertzen dena aplikatzeko behar adina baliabide duen kasuetan izan ezik.

### **2. Curriculum-aniztasuneko programen ezaugarriak**

- 2.1. Curriculum-aniztasuneko programak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Graduatuen titulua lortzera bideratuta daude.
- 2.2. Ikasleek, gutxienez, 18 ordu emango dizkiete ikastetxeak erabakitzen dituen arloak sartuko diren gizarte-hizkuntza eta zientzia-teknologiaren eremuei.



Gainontzeko arloak ohiko taldeetan (edonola ere 3 arlo gutxienez) edo talde espezifikoetan emango dituzte.

2.3. Irakasle bakar batek emango du eremu bakoitza. Eremuko irakasleetako batek bere gain hartuko du ikasle horien banakako tutoretza eta, gutxienez, astean 2 ordu eskainiko dizkio.

2.4. Ebaluazio psikopedagogikoari buruzko txostena, programa horietan parte hartzeko irakasle-taldearen proposamena eta proposamen hori familiari eta ikasleari jakinarazi zaiela egiaztatzea ikasketa-buruaren zaintzapean geratuko dira eta Hezkuntza Ikuskaritzaren eskura egongo dira.

2.5. Urtebete edo 2 urteko programaren bukaeran ebaluatuko zaie curriculumaniztasuneko ikasleei. Bigarren Hezkuntzako Graduatuaren titulua lortzeko proposatu ezean, programa horietan ezarritako baldintzak bete beharko dituzte trebakuntza profesionaleko programetara sartzeko. Ikasturte bateko curriculumaniztasuneko talde batean errepikatu ahal izango dute baina ezin izango dira DBHko ohiko kurtso batera sartu.

### **3. Curriculum-aniztasuneko programen hartzaileak diren ikasleen baldintzak**

Curriculum-aniztasuneko programetara sartu ahal diren ikasleek baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Ikaslearen taldeko irakasle-taldeak curriculum-aniztasuneko programa jarraitzeko proposatuak izatea, ikastetxeko orientatzaileek eta tutoreek egindako ebaluazio psikopedagogikoari buruzko txostenaren ondoren.

b) Informatuak izatea eta haiei eta haien guraso edo legezko ordezkariari entzutea.

#### **Baldintza espezifikoak**

a) 2 ikasturteko curriculum-aniztasuneko programa batean parte hartzeko, 2010eko abenduaren 31n 15 urte beteta:

- DBHko 1. edo 2. kurtsoa errepikatu izana.

- DBHko 1. eta 2. kurtsoko 4 arlo, gehienez ere, gainditu gabe izatea 2009-2010 ikasturteko aparteko deialdiaren ondoren.

b) 2 ikasturteko curriculum-aniztasuneko programa batean parte hartzeko, 2010eko abenduaren 31n 16 urte beteta:

- DBHko 1., 2. edo 3. kurtsoa errepikatu izana.

- DBHko 1. eta 2. kurtsoko 4 arlo, gehienez ere, gainditu gabe izatea 2009-2010 ikasturteko aparteko deialdiaren ondoren.



- c) Ikasturte bateko curriculum-aniztasuneko programa batean parte hartzeko, 2010eko abenduaren 31n 16 urte beteta.
- DBHko 1., 2. edo 3. kurtsoa errepikatu izana.
  - DBHko 1., 2. edo 3. kurtsoko 4 arlo, gehienez ere, gainditu gabe izatea, 2009-2010 ikasturteko aparteko deialdiaren ondoren.
- d) Ikasturte bateko curriculum-aniztasuneko programa batean parte hartzeko, 2010eko abenduaren 31n 17 urte beteta izatea.
- DBHko 1.a, 2.a, 3.a edo 4. kurtsoa errepikatu izana.
  - DBHko 1., 2. edo 3. kurtsoko 4 arlo, gehienez ere, gainditu gabe izatea, 2009-2010 ikasturteko aparteko deialdiaren ondoren.
- e) Ikasturte bateko curriculum-aniztasuneko programa batean parte hartzeko, 2010eko abenduaren 31n 18 urte beteta.
- Ikasturte bateko edo bi ikasturteko curriculum-aniztasuneko programa bat egin izana eta Graduatuaren titulurako proposatua ez izana.

#### **4. Curriculum-aniztasuneko taldeen baldintzak**

4.1. Curriculum-aniztasuneko talde berriak baimentzeko edo lehendik baimenduta daudenen baimena berritzeko, honako baldintza hauek beteko dira:

- Zehaztutako baldintzak betetzen dituzten gutxienez 8 ikasle eta gehienez 15 izatea talde bakoitzeko.
- Programa hauetarako proposatzen den ikasle-kopurua DBHko 3. eta 4. ikasturteko ikasle guztien % 15etik gorakoa ez izatea.
- Baimendutako talde-kopurua bi baino gutxiago izatea, DBHko 3. eta 4. mailan 300 ikasletik gora dituzten ikastetxeetan izan ezik.
- Talde berean honako egoera hauetako batean dauden ikasleek bakarrik parte hartzea:
- Ikasturte bateko programa egiten dutenak.
- Bi ikasturteko programako lehenengo urtea egiten dutenak.
- Bi ikasturteko programako bigarren urtea egiten dutenak; programa horretan ikasturte bateko programa egiten duten ikasleak edo errepikatzaileak sar daitezke.

4.2. Bi ikasturteko programetan ikasleek jarraituko dute, 2010/2011 ikasturtean bigarren urtea egiteko. III-a eranskina beteko dute. Bete gabeko plazak geratzen badira, ikastetxeak, horrela egoki ikusten badu, ikasturte bateko programa egin behar duten ikasleak sar ditzake. Kasu horretan, ez da beharrezkoa izango taldearen baimena eskatzea, baina III-a eranskinean bertan, talde horietan integratzen diren ikasleen erlazioa jakinarazi beharko da.



- 4.3. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, argibide hauetan zehazten den prozeduraren bidez, aurkeztutako eskaerak baloratuko ditu.
- 4.4. Baimendu ahal izango dira itunpeko ikastetxeetan hezkuntza-ituna areagotzea eta ikastetxe publikoetan irakasleen kopurua handitzea ez dakartzaten curriculumaniztasuneko taldeak.

## **5. Eskaerak aurkeztea**

- 5.1. Ikastetxeko zuzendaritzak Hezkuntza Lurralde Ordezkaritzetako Hezkuntza Berriztatze Buruzetan aurkeztuko du Hezkuntza sailburuordeari zuzendutako eskaera, argibide hauen I. eranskinaren arabera.
- 5.2. Eskaerari II. eta III. eranskinak gaineratuko dizkio, behar bezala bete ondoren.
- 5.3. 2010eko ekainaren 30a izango da eskaerak aurkezteko azken eguna.

## **6. Baimentzeko prozedura**

- 6.1. Hezkuntza Berriztapenerako zuzendaria edo eskuordetzen duen pertsona buru duen eta Ikastetxeetako zuzendariak edo eskuordetzen duen pertsonak, Ikuskari Nagusiak izendatutako ikuskari batek eta Hezkuntza Berriztapenerako zuzendariak izendatutako teknikari batek osatuko duten batzorde batek baloratuko ditu ikastetxeek aurkezten dituzten eskaera berriak eta baimendutako taldeen kopurua handitzea eskatzen duten ikastetxeek aurkeztutako eskaerak.
- 6.2. Hezkuntza sailburuordeak behin-behingo ebatziko du deialdi hau eta uztailaren lehen hamabostaldirako baimenduko ditu curriculum-aniztasuneko taldeak. Behin-behineko ebazpen hau Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren web orrian emango da argitara eta ikastetxeek 10 eguneko epe bat izango dute, nahi dituzten erreklamazioak egiteko.

## **7. Curriculum-aniztasuneko programetan dauden ikasleen behi-betiko zerrenda**

- 7.1. Ikasturtearen hasieran, Hezkuntza Ikuskaritzak egiaztatuko du bat datozen edo ez curriculum-aniztasunerako proposatutako ikasleen zerrenda eta benetan programa horietan eskolatu direnena.
- 7.2. Ikuskaritzaren txostena, aurreko egiaztatzearen ondorioz, eskuan duela eta ikastetxeen erreklamazioak kontuan hartu ondoren, Hezkuntza sailburuordeak behin-betikoz ebatziko du deialdia eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian emango da argitara.
- 7.3. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuak, baimendutako taldeak kontuan hartuta, itunpeko ikastetxeetan zein modulu aplikatu behar den ebatziko du.

## **8. Oinarrizko programa eta banakako programa**

Curriculum-aniztasuneko taldeak baimentzen zaizkien ikastetxeek oinarrizko programa eta banakako programa eginda izan beharko dituzte, programa hauek arautzen dituen aginduak 6. eta 7. artikuluan azaltzen dituen alderdietan behintzat. Hezkuntza Ikuskaritzak 2010ko irailaren 30erako izan beharko ditu agiri hauek eskura.

Vitoria-Gasteizen 2010eko ekainaren 7an

Maria Antonia Ozcariz Rubio

HEZKUNTZA SAILBURUORDEA



## I. ERANSKINA

### CURRICULUM ANIZTASUNeko TALDEA/K BAIMENTZEKO ESKAERA

**Ikastetxea** ..... **Kodea** .....

**Udalerrria** ..... **Lurraldea** .....

Goian aipatutako ikastetxeko zuzendariak jakinarazten du baduela curriculum-aniztasuneko taldeak baimentzeko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak ezarri dituen baldintzen berri eta, Hezkuntza sailburuordearen jarraibideen arabera, curriculum-aniztasuneko talde hauek osatzeko baimena eskatzen du.

Taldea	Ikasturte 1ekoa IIa. Eranskina	2 ikasturtekoa (1. urtea) IIb. Eranskina	2 ikasturtekoa (2. urtea) IIIa. Eranskina
Kopurua			

.....(e)n, 2010eko .....aren .....(e)an.

**Zuzendaria**



**Ila. ERANSKINA**  
**URTEBETEKO CURRICULUM ANIZTASUNEN PROGRAMA BATERAKO**  
**PROPOSATUTAKO IKASLEAK**

Ikastetxea ..... Kodea .....

Udalerrria ..... Lurraldea .....

	DEITURAK ETA IZENA	Adina 10/12/31n	DBHn Errepikatutako maila	2009-10 <sup>1</sup> ikasturtean egin zuen maila	DBHn gainditu gabe dituen ikasgaiak
1					
2					
3					
4					
5					
6					
7					
8					
9					
10					
11					
12					
13					
14					
15					

.....jaun-andreak, ikastetxeko idazkaria anisen aldetik, emandako datuak zuzenak direla egiaztatzen dut, eta berriazko deialdian lortutakoak direla.

.....(e)n, 2010eko ..... .. aren.....(e)an.

**Zuzendaria**

**Idazkaria**

**Ikuskaritzak bete beharrekoa**

<b>Baldintzak</b>	<b>BAI</b>	<b>EZ</b>
Ikasleek berriazko baldintza akademikoak betetzen dituzte	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Gutxienez 8 eta gehienez 15 dira ezarri diren baldintzak betetzen dituztenak	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Proposatzen den ikasle-kopurua 3. eta 4. mailako ikasle guztien % 15etik beherakoa da	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
<b>ALDEKO TXOSTENA?</b>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>

Aurreko baldintzetako bat bete ez arren aldeko txostena egiten bada, honi gaineratuko zaion beste agiri batean arrazoituko da zergatik hartu den erabaki hori.

Sin.: Ikuskaria

<sup>1</sup> CA jarri bi urteko programa bateko 2. ikasturtean jarraituko dutenei edo CA errepikatu dutenei



## IIb. ERANSKINA

**BI URTEKO CURRICULUM ANIZTASUNEN PROGRAMA BATERAKO  
PROPOSATUTAKO IKASLEAK**

Ikastetxea ..... Kodea .....

Udalerrria ..... Lurraldea .....

	DEITURAK ETA IZENA	Adina 10/12/31n	DBHn Errepikatutako maila	2009-10 ikasturtean egin zuen maila	DBHn gainditu gabe dituen ikasgaiak
1					
2					
3					
4					
5					
6					
7					
8					
9					
10					
11					
12					
13					
14					
15					

.....jaun-andreak, ikastetxeko idazkaria anisen aldetik, emandako datuak zuzenak direla egiaztatzen dut.

.....(e)n, 2010eko ..... aren.....(e)an.

Zuzendaria

Idazkaria

---

**Ikuskaritzak bete beharrekoa**

<b>Baldintzak</b>	<b>BAI</b>	<b>EZ</b>
Ikasleek berariazko baldintza akademikoak betetzen dituzte	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Gutxienez 8 eta gehienez 15 dira ezarri diren baldintzak betetzen dituztenak	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Proposatzen den ikasle-kopurua 3. eta 4. mailako ikasle guztien % 15etik beherakoa da	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
<b>ALDEKO TXOSTENA?</b>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>

Aurreko baldintzetako bat bete ez arren aldeko txostena egiten bada, honi gaineratuko zaion beste agiri batean arrazoituko da zergatik hartu den erabaki hori

Sin.: Ikuskaria





## ERANSKINA IIIa

**BI URTEKO CURRÍCULUM ANIZTASUNeko PROGRAMA BATEKO BIGARREN URTEA EGITEKO PROPOSATUTAKO IKASLEAK** (Ebazpen bidez onetsita 09/10 ikasturtean)

Ikastetxea ..... Kodea .....

Udalerría ..... Lurraldea .....

2009-2010 IKASTURTEA GAINDITU ONDOREN PROGRAMAREN 2. IKASTURTEAN JARRAITZEN DUEN IKASLEGOA		
	DEITURAK ETA IZENA	Adina 10/12/31n
1		
2		
3		
4		
5		
6		
7		
8		
9		
10		
11		
12		
13		
14		
15		

URTE BETEKO PROGRAMA EGITEKO TALDEAN SARTZEN DEN IKASLEGO BERRIA					
	DEITURAK ETA IZENA	Adina 10/12/31n	DBHn errepikatutak o maila	2009-10 ikasturtean egin zuen maila	DBHn gainditu gabe dituen ikasgaiak
1					
2					
3					
4					
5					

.....jaun-andreak, ikastetxeko idazkaria anisen aldetik, emandako datuak zuzenak direla egiaztatzen dut.

.....(e)n, 2010eko ..... aren.....(e)an.

Zuzendaria Idazkaria

Ados,  
Sin.: Ikuskaria



#### IV. ERANSKINA. BAREMOA

1. Eskola porrotaren maila: DBH gainditu ez duten eta titulua lortu ez duten ikasleen ehunekoa. (2008/2009 ikasturteko datu ofizialak): 48 puntura arte

> 5%	3 <u>puntu</u>
5% - 10%	8 <u>puntu</u>
11% - 15%	13 <u>puntu</u>
16% - 20%	18 <u>puntu</u>
21 % - 25%	23 <u>puntu</u>

26% - 30%	28 <u>puntu</u>
31% - 35%	33 <u>puntu</u>
36% - 40%	38 <u>puntu</u>
41% - 45%	43 <u>puntu</u>
> 45%	48 <u>puntu</u>

2. Egoera sozio-ekonomikoa (12 puntura arte):

Bekadunak % 10 baino gutxiago 0 puntu	0 <u>puntu</u>
% 10tik 20ra bitartean 1 puntu	1 <u>puntu</u>
% 21tik 25era bitartean 2 puntu	2 <u>puntu</u>
% 26etik 30era bitartean 4 puntu	4 <u>puntu</u>
% 31etik 35era bitartean 6 puntu	6 <u>puntu</u>
% 36etik 45era bitartean 8 puntu	8 <u>puntu</u>
% 45etik gora 12 puntu	12 <u>puntu</u>

OHARRA: Baremo honen datuak Sailaren beraren datuak dira eta, horregatik, ikastetxeek ez dituzte beren eskaeretan gaineratu behar.